

Noticias de Bizkaia



Deia. Noticias de Bizkaia - Noticias de última hora de Bizkaia, Euskadi e internacionales.



Zirrikituetatik begira

## Telling it as it is

Ana Urkiza - Lunes, 26 de Marzo de 2012 - Actualizado a las 05:38h

Martxoaren 22tik 24ra, Bilbon eta Gasteizen, "Going public telling it as it is" simposium-ak izan du leku, hain zuzen ere, artelanek hirietako espazio publikoetan duten izaera eta esanahia aztertzeke sortzaileen bilguneak.

Aski ezaguna da "arteaz aldu beharrik gabeko lengoia" dela dioen esapidea. Eta arte garaikidearen kasuan (batez ere, pinturak eta eskulturak), artelanak "sentitzeko eta hunkitzeko" direla entzun izan ohi dugu. "Dena azaldu beharrik ez" dagoela, alegia; sentitzearekin, nahikoa omen; iradokitzearekin eta inspiratzearekin, konforme.

Orain, ostera, ENPAPen eskutik (European Network for Public Art Producers), espazio publikoetan aurkitzen diren artelanak hizkuntzaren bidez azaldu nahi dira. Edota artelanaren eta hiriaren arteko loturaren gaineko istorioa edo historia kontatuz, espazioaren eta hiritarrentzat bilgune diren lekugune publikoaren ezagutza artistikoa eskaintzea. Hori dela eta, aipatu artelanak dauden hirietako eta kaleetako historia ezagutu behar omen eta hiriak bere espazio publikoekin transmititu nahi duen irudia, marka eta balio simbolikoa nola prestatu eta jakinarazi daitekeen aztertzea eta asmatzea da simposium-aren helburua.

Komunikazioaren ikuspegitik, hiriaren irudia eta marka transmititu ezezik kontatuko duen istorioa egituratzea ekimen berria bezain interesgarria da. Artelanari dagokionean, ostera, badirudi, sentitzeko, hunkitzeko, iradokitzeke eta inspiratzeko bidea laburtzen duela. Hiritarri, bere kabuz artea sentitzeko eta hortik bere hiriaren edo hiriko espazio publikoaren gaineko pertzepzio semantikoaz jabetzeko muga dakarrela.

Gauza bat argi dago, hala ere: Bilbok eta Gasteiz hiriaren marka indartzearen aldeko apustua egin dutela eta, horrekin batera, arte ezberdin guztiak plazan elkarrekin biltzera derrigortu. Ez da gutxi!

Cargando comentarios...



Publicidad

- 
- 
- 

• © Deia - Noticias de Bizkaia

- 
- 
-